

## PROGRAMAZIOAREN LABURPENA

### HELBURUAK

1. **Musika lanaren pertzepzioa lantzea modu aktibo batean erreperitorio ezberdina erabiliz. Honen bitartez kontzentrazioa eta isiltasuna lortzea.**
2. **Taldean nahiz bakarka abestea eta musika tresna, gitarra, perkusioa jotzea.**

3. **Praktikarako behar diren elementuak behar diren bezala ulertzea eta erabiltzea. Partitura erabiliz eta partiturarik gabe.**
4. **Musikarekiko ikuspegi irekiago bat lortzea zentzu kritikoaren bitartez.**
5. **Musika lan batean agertzen diren elementu guztiak antzeman ahal izatea: forma, doinua, erritmoa, harmonia, ehundura, tinbrea, dinamika.**
6. **Ikastetxeak proposatzen dituen proiektu eta kontzertuetan parte hartzea.**
7. **Ikasgela txukun mantentzea.**
8. **Taldean lan egitea modu aktibo batean.**



**EDUKIAK**

1. **Musika elementuak:** Erritmoa, doinua, ehundura, harmonia, tinbrea, dinamika.
  2. **Erritmo ezberdinak irakurketa eta adierazmena** musika tresna, objektuak eta gorputzaren bidez.
  3. **Entonazio ariketak.** Partitura errazen interpretazioa.
  4. **Musika instrumentala:** Bakarkako musika tresna, gitarrarekin interpretazioa.
5. **Gorputz adierazmena:** Koreografiak eta dantzak, bai irakasleak proposatutakoak  
bai ikasleek sortutakoak.

## KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK

1. **Gelako behaketa:** Ebaluazio bakoitzean egindako froga guztien batzbestekoa egingo da. Behaketan, puntu hauek kontuan hartuko dira.
  - a. Idatzizko ariketak.
  - b. Partitura irakurketa: erritmoa eta entonazioa.
  - c. Musika tresnaren interpretazioa.
  - d. Taldekako jarduerak: dantzak, konboak...

**Behaketan, emaitzaz gain, prozesua eta prozesuan izandako jarrera eta lana kontuan hartuko da.**

**Irakasgaiaren azken emaitza ebaluazioen arteko batzbestekoa eginda aterako da. Kontuan hartuko da kurtsoan zehar jarraitutako joera.**

**Berreskurapenak: Hurrengo ebaluazioan gaintitu ez diren frogak berreskura daitezke.**